

Plaentxiako Matias joan da Donostira eginkizun batzuetara. Benetan lilluragarri arkitu du Gipuzkoako uri nagusia. Begira alde batera, begira bestera. Zuzma, usma ta ibilli kalez kale, Plaentxian ez diran denda dotore ta *minifalda* gardatsak ikustatzen...

Eta jakifia, azkeneko trenan galdu ta Donostian gelditzen da.

Gañezka apaldu ta edan ondoren, gaztetatik eza gutzen duan pensio baten eskatzen du lo-gela.

Etxekoandreak oartzten dio Matias, eri oge bakarira duakala libre, soldadu amerikano beltz bat lo dagon bi ogeko gelan.

Ez ziran orduak beste iaun atejoka azteko eta bertan gelditu da plaentxiatarra gaua igarotzen.

Orrein gertutik gizaseme beltza iaioiz ikusi gabe, denbora luzean egon zan Matias, itxuraz lo-zurrunka zegoan yanki beltzari begira. Eta, jakifia, kolorezko gudaria mindu egin zan.

Gure Matias'ek lo artu zuanean, beltzak zer egin du?... Oñetakoak garbitzeko zeramakian betun beltzakin, margoldu du plaentxiatarren aurpegia.

Goizean-goiz, agindu bezela, etxekoandreak esnatu du Matias.

Jaiki da erdi lotan eta izpillura begiratzera, era bat arriturik dio:

—Ene! Etxekoandria konfundiru egin dok. Neuri deitxu biarrian, beltzari deitxu jotzak.

Berriz ere, *Plaentxiako zubixa*... Zubi famatua izango da. Mundu guziko zubi gafietan, aparkatzea galazia dago. *Plaentxiako zubixan* berriz, debekatua ez izanik, Aintamentu berak antolatu du *parking* dotorea, bost pezetako txateltxoakin.

Zubia altxatzeko denbora luzean jardun zuten lanean, jubilauteko plaentxiatarren laguntzarekin...

Autobus'aren zai zegoan eibartar batek, borondatetzko *zubixan injenierueri* diote:

—Ene! Zubix au, geldi daok...!

—Eibarten zubixak ibilli eitzeitxuk ala?

(Nai duana esaten duanak, nai ez dana entzuteko arrizkua.)

Kaietano Kareaga, eibartar ospetsu eta eztenlaria izan zan, baita ere artista grabadore iaioa.

Kaietano'k ez zeukan *cine'ra* joateko gogo aundirik. Baña bere alaba Mercedes, jardun ta jardun ari zan eta azkenean, juan ziran aita alabak Santa Teresa'n bizitzan pelikula ikustera.

An zegon Kaietano dena emakumez inguratuta, *ni nora ekarri naxe!* pentsatzen.

Pelikulakin batean, asi dira emakumeen negarrak antziak eta izukeriak. Gero ta geiago.

Pelikulan erdian, atsedena izaten danean, zutik jarri eta malkoak legortzen ari diran andreri begira dio Kaietano'k:

—Familizakua dozue?...